

Ricardo Mutuberria

ZIENTZIA HERRIARENTZAT



ZIENTZIA ETA ARTEA UZTARTURIK

“EHUn hasi nintzen biologia ikasten, baina hezkuntza-eredua ez zen onena, ez zen inguru ona motibazioa lortzeko, eta atzerrira joateko aukeren bila hasi nintzen. Dirulaguntza bat atera zen AEBetara joateko, eta horren bitartez hara joan nintzen. Eredua desberdina da han, orokorragoa, badago *Art & Science* esaten diotena, arteak eta zientzia konbinatuta. Nik hasieratik egin nahi izan nituen biologia eta artea, baina hemen, oraindik, unibertsitatea konpartimentutan antolatuta dago. Hau egin dezakezu, edo hau. Bizitza, eta benetako lanpostuak, ez dira horrelakoak. Unibertsitateak diziplinen aniztasunerantz jo behar du”.

“Denon artean erabaki behar dugu zientzia nola erabili”

Orain bi urte sortu zuen Ricardo Mutuberria biologoak (Getxo, 1968) Biook proiektua, Herritarren Zientzia eta *Do It Yourself* (Zuk Zeuk Egin) korronteen barruan kokatzen dena. Zientzia egiteko eta zientziaz erabakitzeko aukera denon esku egon dadila da pentsamendu-ildo horien muina. Besteak beste, Bilbon laborategi komunitarioa sortzeko asmoa du Biookek. “Jendeak jendearentzat egindako biologia” goiburua du elkarteak.

UNAI BREA HODEI TORRES

Do It Yourself, Zuk Zeuk Egin. Baita zientzian ere...

Gizakiek gizaki direnetik egin dituzte gauzak pentsamolde horrekin: nekazaritza asmatu, natura menperatu, tresnak sortu... Industrializazioaz geroztik gauza asko eginda ematen dizkigute, baina azken hamarkadetan berriro itzuli gara guk geuk egitera. *Do It Yourself* mugimendua AEBetan hasi zen 50eko hamarkadan. Jendea etxeko garajeetan hasi zen denetik egiten: suziriak, mota guztietako makinak... Eta azken urteetan beste arlo batzuetara hedatu da mugimendua, bioteknologiara esate baterako. Gure helburua, zientziaren bidez jendearen bizi-kalitatea, osasuna eta abar hobetzea da.

Herritarren zientziak nola lagun- du dezake horretan?

Behar ditugun aldaketak herritarren ekimenen bidez bakarrik gerta daitezke. Ez industria aldatzen delako, edo gobernuek urratsak egiten dituztelako. Guk orain itsasora joaten diren plastikoen inguruko

proiektu bat dugu. Nik esaten badut “jaten ditugun arrain gehienek, eta agian guztiek, mikroplastikoak dituzte beren gorputzetan”, erantzungo didate “tira, ze txarto, baina goxo dago eta...”. Buelta eman nahi diogu horri: bideo bat egingo dugu, azalduz arraina zelan ireki, digestio-aparatua atera, eta zientzialariek laborategian bezala, iragazki baten bidez errailetan zenbat plastiko dagoen ikusi. Horrela, kontzientzia sortuko da. Helburua jendearen tresnak ematea da, mundua aldatzeko eta hobetzeko.

Laborategi komunitario bat sortzea duzu xede. Hau da, egunero-egunero edozein herritar zientzia egitera joan ahal izango den leku bat.

Ez dut ulertzen zelan den posible herri guztietan izatea tenpluak, kirola egiteko eta arteak lantzeko tokiak... eta gaur egun zientziak gure bizimoduan duen eragina izugarrizkoa izanik, tokirik ez izatea zientzia lantzeko, egiteko. Ez dauka-



“HERRITARREN ZIENTZIAREN HELBURUA JENDEARI ZIENTZIA EGITEKO TRESNAK EMATEA DA, MUNDUA ALDATZEKO ETA HOBETZEKO”.

gu tokirik ingurunea hobetzeko, hiriak hobetzeko... Eta herritar komunitate batek bertako ingurumena hobetzeko proiektu bat landu dezake, gazteek hamaika arlo landu ditzakete zientziaren eta teknologiaren esparruan. Nire gurasoak gazteak zirenean beharrezkotzat jotzen zen pertsona guztiak irakurtzen eta idazten jakitea, askok ez zekiela, eta gaur egun gauza bera gertatzen da zientziarekin. Jende pilo batek ez du inoiz zientzia landu.

Ezta oinarrizkoena ere?

Ez. Eta begira zer gertatzen den orain: itsasoa plastikoz gainezka, klima aldaketa, koronabirusa... Informazio zientifikoaren izugarritzko tsunamia dugu. Orain jakin beharra dugu PCR bat zer den, karga birikoa zer den, txertoek funtzionatuko ote duten... Ez gaude prest hainbeste informazio prozesatzeko.

Zientziaren demokratizazioaz hitz egin izan duzu inoiz...

Zientzia demokratikoa zen sorginak zeudenean. Haiek ziren beren garaiko zientzialariak. Nekazariak ere zientzia

egiten zuten, landareak hazteko. Baina XIX. mendean zientzia profesional bihurtu zen. Denboraz teknologia, tresneria berezia... sartu ziren, eta gutxi batzuek baino ez zuten aukera zientzia lantzeko. Munduko biztanle askok ez du hezkuntzarik jasotzen, eta hezkuntza zientifikoa jasotzen dutenen portzentajea oso txikia da; are txikiagoa, hezkuntza zientifikoa jaso ostean zientzia lantzeko aukera dutenena. Baina Zuk Zeuk Egin mugimenduak hori alda dezake, jende asko dagoelako prest zientzia lantzeko, merke bihurtu delako. Zientzialari kopurua handitu daiteke, eta ondorioz zientzia produktioa ere bai. Mota askotakoa gainera, norberaren interesen eta premien arabera proiektuak jorratzen baitira.

Zientzia profesionalaren interesak eta herritarren zientziarenak ez dira berdinak? Denok omen gaude mundua hobetzearen alde.

Ezagutzen ditudan zientzialari guztiak oso helburu onak dauzkate, baina zientzia profesionalak urruntzen zaitu horretatik, finantzamendua lortzea eta

artikuluak argitaratzea bihurtzen da helburu. Laborategi publiko batek molekula bat aurkitzen badu, gaixotasun bat sendatzeko erabil daitekeena, enpresa farmazeutiko batek eros dezake, eta normalean patentatu egingo du. Zer lortzen da? Askotan, ezer ez gertatzea, ez delako gehiago garatzen. Baina beste inork ezin du erabili. Eta erabiltzen bada, enpresa horrek erabakitzen du zenbat diru ordaindu behar den sendagai hori jasotzeko. Maiz, gutxi batzuek baino ezin dute ordaindu. Denbora labur batez lan egin dut industria farmazeutikoan, eta beharrezkoa da, hari esker jende askok gaixotasunak gainditu dituelako. Eredu kapitalistak gauza on batzuk ekarri ditu, baina nork jasotzen du onura hori? Zientzia profesionalak muga asko du onura hedatzeko. Teknologia eta jakintasuna onerako erabil daitezke, ala ez. Garrantzitsua da komunitatea zientzia produkzioan sartzea eta zientzia menperatzea, zer eta nola erabili denon artean erabaki ahal izateko. Zientzialari profesionalen aholkuekin, baina erabakiak gurea izan behar du. ●